

Merkatuaren segmentazioa

Merkatuaren segmentazioarekin hasteko, puntu hauek hartu ditugu kontuan:

- 16 urtetik gorakoak izatea.
- Ingurumenarekin kontzientziatuta egotea.
- Kirolaz gozatu nahi dutenak.

Gure bezeroak 16 urtetik gorakoak izango dira, sasoian jarri edo gorputza aktibatu nahi dutenak, ingurumenarekin kontzientziatuta daudenak eta kirolaz kontzientzia garbiarekin gozatzeko prest daudenak..

Herriko kiroldegiarekin ere hitz egingo dugu, gure negozioarentzat funtsezkoak diren elkarteak sortuz, eta haiek bezeroei eskaini ezin dizkieten jarduerak eskainiko dizkiegu kuota baten truke.

Eta, amaitzeko, soberako elektrizitatearen ehuneko bat salduko diegu energia berriztagarriko enpresei, energia-arazo handi horri gure aletxoak emateko.